



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena Gai nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa Asuntos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2017ko azaroak 28

Vitoria-Gasteiz, 28 de noviembre de 2017

Lehendakaritza

GOBERNU KONTSEILUAK ENPRESENTZAKO DIRULAGUNTZAK ONARTU DITU BERDINTASUN DIAGNOSI ETA PLANAK EGIN DITZATEN

Gobernu Kontseiluak 80.000 euroko diru-laguntza onartu du Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen bidez enpresek 2018. urtean emakume eta gizonen berdintasunerako diagnosiak eta planak egin ditzaten.

Diru-laguntza hauek enpresek aholkularitza-enpresa homologatuak kontratatu ditzaten zuzenduak daude. Aholkularitza-enpresek laguntza teknikoa emango dute emakume eta gizonen arteko berdintasunerako diagnostikoak egiteko eta berdintasun-planak diseinatzeko, bai barne-antolamendurako, bai ematen dituzten zerbitzu edo produktueterako.

Diru-laguntzak erakundeei beren lehen pausoetan laguntzea du xede, enpresaren barruan berdintasuna sustatuko duen kultura bat txertatzen laguntzeko beren lehen berdintasun-diagnostiko eta -planak diseinatzen hastean, plan eta programa horiek diseinatzean beharko dituzten baliabide materialez, ekonomikoez eta giza baliabideez hornituz.

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

EUSKO JAURLARITZAK ONARTU EGIN DU EUSKAL Y-AREN ERAIKUNTZARAKO ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREKIN INDARREAN DAGOEN HITZARMENAREN BERRITZEA ETA ENKOMENDA EGUNERATZEA

- Eusko Jaurlaritzak jarduketa gehiago hartuko ditu bere esku, Ezkioko geltokia, Astigarragako geralekua edo Bergara-Lezo tarteko larrialdi irteerak, besteak beste.
- Ondoren, Ministro Kontseiluak 2 dokumentuak berretsi beharko ditu: hitzarmena eta enkomenda eguneratzeko agiriak.

Eusko Jaurlaritzak jarduketa gehiago hartuko ditu bere esku Euskal Yaren Bergara-Lezo tartean. Egiteko berriak Euskadiko Administrazio Orokorrari aginduko zaizkio, 2006ko apirilaren 24an, Estatuko Administrazio Orokorraren, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Administrador de Infraestructuras ferroviarias (ADIF) izenekoaren artean Euskadiko Trenbide Sare Berriaren eraikuntzarako jarduketak agintzeko sinatu zen Lankidetza Hitzarmenean sartutako aldaketen bitartez.

2006ko apirilaren 24an Lankidetza Hitzarmena sinatu zenean jaso ez ziren zenbait jarduketa jasoko dira orain:

- a) Ezkioko Geltokiaren eraikuntza. Hasieran aurreikusitako kostua 4,10 M€-koa da (BEZ Barne), Ezkioko Geltokiaren Oinarrizko Proiektua kontuan izanik.
- b) Astigarragako geralekuaren eraikuntza, ADIFek kudeatzen duen zabalera iberiarreko sarean. Hasieran aurreikusitako kostua 4,70 M€-koa da (BEZ Barne)
- c) Jarduketa gehiago egikaritzea Bergara-Lezo tartean:
 - Larrialdietako irteerak tuneletan, Batzordearen 2014ko azaroaren 18ko 1303/2014 zenbakiko Europar Batasunaren Araudiarekin bat etorritz. Hasieran aurreikusitako kostua 14,18 M€-koa da (BEZ Barne).
 - Jarduketa gehigarriak: hegalak egonkortzea eta zeuden iturburuetan sortu diren eraginak lehengoratzea. Hasieran aurreikusitako kostua 1,72 M€-koa da (BEZ Barne).

Hitzarmen berriaren helburua, 2006ko apirilaren 24an Euskadiko Trenbide Sare Berria eraikitzeko sinatu zen Hitzarmenaren bosgarren klausula eguneratzea

da, Bergara eta Irun artean luzatzen den tartearen egikaritze kostuetan onetsi eta aurreikusi diren kontratu gorabehera guztiak jasoz. Astigarraga-Oiartzun-Lezo tartea ere hor barruan sartzen da. Azken tarte horren barruan dago trenbidea Donostiara sartzea, gaur egungo Iparraldeko geltokira, eta aipaturiko jarduketak hor gehituko dira:

- a) Astigarraga-Oiartzun-Lezo tartearen eraikuntza. Hasieran aurreikusitako kostua 356,60 M€-koa da (BEZ Barne), Euskadiko Trenbide Sare Berriaren Informazio Azterlan Osagarria, Astigarraga-Oiartzun-Lezo tartea, izenekoaren datuak kontuan izanik.
- b) Donostiako Geltokiaren eraikuntza egungo Iparraldeko geltokian. Aurreikusiriko kostua 90 €-koa da (BEZ Barne).

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

BERRIKERTU PROGRAMAK 1.750.000 € BIDERATUKO DITU EUSKADIN IKERTZAILEAK KONTRATATZEKO LAGUNTZETARA

Gobernu Kontseiluak Berrikertu Programa - Euskadin ikertzaileak kontratatzekeo laguntza-deialdia onetsi du; 1.750.000 € bideratuko ditu.

Berrikertu laguntza-programa horren erakunde onuradunak honako hauek izango dira:

- Enpresak (handiak edo ETEak)
- Enpresa-elkarteak
- Zientzia eta Teknologia Euskal Sareko Agenteak - ZTBES, Ikerketa Kooperatiboko Zentroko, Zentro Teknologikoko eta Enpresetako I+G unitateetako kategorietan.

Laguntza horiek bat datoz 2020rako Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planarekin, ZTBPrekin; espezializazio adimentsuan oinarritzen da, eta Eusko Jaurlaritzak datozen urteotan I+G+b politikak garatzeko duen programazio-tresna da.

Talentu ikertzailea dela eta, Planak, besteak beste, honako lan-ildo hauek ditu:

- Enpresa-sarera ikertzaileak sartzea.
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) agenteen eta enpresen artean ezagutzaren transferentzia sustatzea.
- Zientzia- eta teknologia-eremuan genero-arraila murriztea eta, horretarako, aukera-berdintasuna, eskubideak eta erantzukizunak sustatzea.

Helburu horiek lortzen laguntzeko, Berrikertu programa Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak euskal enpresetan eta ZTBESko agenteetan giza kapital ikertzailea sartuz I+G jarduera bultzatzen laguntzeko baliatzen duen tresna da.

Laguntza horiek tramitatzekeo informazioa egoitza elektronikoan dago eskuragarri:

<http://www.industria.ejgv.euskadi.eus/r44-teletram/es/> (gaztelania)

<http://www.industria.ejgv.euskadi.eus/r44-teletram/eu/> (euskara)

Espedientera eta eskabidearen ondoko tramiteetara jotzeko, kanal elektronikoa baliatuko da, honako helbide hauen bidez:

<http://www.euskadi.eus/misgestiones>

<http://www.euskadi.eus/nirekudeaketak/>

Eskabidea aurkeztekeo azken eguna 2018ko urtarrilaren 25a izango da, 12:00etan.

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

EUSKO JAURLARITZAK 725.000 EUROREKIN LAGUNDUKO DU ELIKADURAREN TEKNOLOGIEN GAINEKO IKERKETA PROIEKTUAK GARATZEN

- **Azti Fundazioa ikerketa zentroaren bitartez, haurren obesitatea eta etorkizuneko kontsumitzailearen ohiturak edo premiak ikertuko dira**
- **Berrikuntza Elikaduraren Balio Katean dimentsio gehiago hartzeko estrategia gisa da Gastronomia eta Elikaduraren 2017-2020 Planaren lehentasunetako bat**

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Sailak erabaki du Azti zentro teknologikoak elikaduraren teknologien eremuan egingo dituen ikerketa proiektu batzuk finantzatzen laguntzea, guztira 725.000 euro jarrita horretarako. Zehazki, Knowledge and Innovation Community (KIC) On Food izeneko proiektu europarra da, bai eta haurren obesitatea prebenitzeko plataforma digital bat eta etorkizuneko elikagaiak garatzeko jakin beharrekoa eskuratu nahian kontsumitzaileen gaineko ikerketak egiteko laborategi berritzaile bat garatzeko landuko direnak ere.

Laguntza hauek Euskadiko RIS3 Espezializazio Adimentsurako Ikerketa eta Berrikuntzako Estrategian eta Euskadi 2020 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean jasotako helburu eta lehentasunei erantzuten diete, eta Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Saila nekazaritzako elikagaien sektoreari laguntzeko garatzen ari den eta berriki abian jarri den Gastronomiaren eta Elikaduraren 2017-2020 Plan Estrategikoan jasotzen den politika erabakigarriaren baitan kokatzen da. Plan Estrategiko horretan berrikuntzan jartzen da arreta berezia, Elikaduraren Balio Katean dimentsio gehiago hartzeko eta datozen urteetan lehentasun estrategikoetako bat izan dadin estrategia den heinean. Planaren helburuetako bat da, gainera, elikaduraren balio kateko agente guztien lehiakortasuna orokorrean hobetzea, berrikuntzaren bitartez, ezagutza berriak sartuz eta agente guztien laguntzarekin.

Proiektuen laburpena

- **KIC EIT FOOD ekimena:** Europak aurrean edukiko dituen erronkei erantzuteko, tartean elikaduraren erronkari, European Institute of Innovation and Technology (EIT) erakundeak definitutako lehentasunen barruan sartzen da. El KIC EIT FOODek «ezagutzaren triangelua»-ren hiru aldeak biltzen ditu: enpresak (Enpresa Txiki eta Ertainak ere bai), heziketa erakundeak eta ikerketa zentroak, elkarlanean ari direnak eta beren baitan goi mailako heziketa, enpresak eta ikerketa hartzen dituztenak, ikasleak ekintzaile izatera igartzeko, ideiak produktu

bihurtzeko eta laborategitik kontsumitzailearengana iristeko trantsizioa errazteko. Europako ekimen liderra da, ekintzaileak eta enpresariak ahulduntzen dituen, elikaduraren balio katearen erronketan munduan erreferente diren soluzioak garatzeko eta hazkundera eragiteko eta lanpostu kualifikatuak sortzeko.

- Plataforma digital baten garapena, haur eta gazteen obesitatea diagnostikatu eta prebenitzeko eta obesitaterako produktu eta zerbitzuak pertsonalizatzeko. Helburua da haur eta gazte obesoen populazioa ezaugarritzea elikagaien ezaugarri molekular eta sentorialen ikuspuntutik eta gogoko elikagaien ikuspegitik, kontrola, autokontrola eta prebentzioa ahalbidetuko duen plataforma digital bat garatzeko. Helburua da ezagutza espezifikoa garatzea obesitatearen garapenean eragina duten baldintza nutrizionalen eta askotariko faktoreen gainean, bai eta arrisku taldea kontzientziatuz eta heziz biztanleek dieta eta bizimodu osasungarriekin bat egitea ahalbidetuko duten tresna batzuk garatzea ere.
- Consumer Lab. Kontsumitzaileak ikertzeko laborategi berritzaile bat garatzea da helburua, azkenean kontsumitzailea izateko produktu berrien eta erosketa esperientzia berrien sorreraren arrazoia eta kontsumitzen diren elikagaiak erosi eta kontsumitzeko erabakia hartzean eragina duten faktore inkontzienteetan eragiteko. Kontsumitzailearen portaerak ikertzeko azpiegitura aitzindaria da, eta etorkizuneko elikagaiak garatzeko jakin beharreko ezagutzak sortu eta transferitzeko balioko du.

Enplegua eta Gizarte Politikak

EUSKO JAURLARITZAK ONIRITZIA EMAN DIO BEATRIZ ARTOLAZABALEK AURKEZTU DUEN 2017-2020 ENPLEGU PLAN ESTRATEGIKO BERRIARI

- Enplegua sustatzeko zerbitzu eta programen inguruko sailen langidalerroak zehazten ditu
- Artolazabal: “maila kuantitatiboan, helburua da egungo langabezia-tasa etengabe murriztea eta % 10etik beherakoa izatea; 2017-2020 aldian 45.000 enplegu sustatzea; aukera gutxiago duten pertsonen zuzendutako kontratazioarako pizgarriak izatea; eta errehabilitazioaren sustapen publikoa egitea
- Lan-aukera 20.000 gazteri, 2017-2020 aldian zehar
- Aurrekontu-zuzkiduraren estimazioa 1.175 milioi eurokoa da, 2017-2020 aldirako

Gobernu Kontseiluak, gaur goizean, oniritzia eman dio **Beatriz Artolazabal** Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak aurkeztu duen 2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoari; bertan, Eusko Jaurlaritzaren barruan **enplegua sustatzeko** zerbitzuak **eta programak** gauzatzen dituzten sailen langidalerroak zehazten dira, enplegua modu zabalean ulertuta, alegia, lanaren, hezkuntzaren eta sustapen ekonomikoaren dimentsioekin lotutako alderdiak ere jasotzen dituela.

Artolazabalen hitzen arabera, “enplegu-politikak **gizarte- eta erakunde-lidergoa** behar du, esanguratsua izango dena; izan ere, gure herrialdearen lehiakortasun-estrategiaren zati bat da. Gainera, hazkuntza ekonomiko jasagarria lortzeko eta egonkortasun eta kohesio sozialak izateko funtsezko tresnak ditu”.

Artolazabalek azaldu du, maila kuantitatiboan, “**helburu estrategikoak honako hauen eraginetan zehazten direla: egungo langabezia-tasa etengabe murriztea**, harik eta 2020ko azken hiruhilekoan % 10etik beherakoa izan arte; 2017-2020 aldian 45.000 enplegu sustatzea eta, horretarako, enpresa berriak sortzea; aukera gutxiago duten pertsonen zuzendutako kontratazioaren pizgarriak abian jartzea; eta errehabilitazioaren sustapen publikoa egitea, enplegua sortzeko sektore intentsibo gisa. Era berean, lan-aukera eskaintzen zaie 20.000 gazteri, 2017-2020” aldian zehar.

Jardun-eremuak

Beatriz Artolazabalek aurkeztu duen 2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoa 9 eremu edo jardun-ardatzen inguruan antolatzen da: 1.A. ETEak, ekonomia soziala eta tokiko garapena; 2.A. Ekintzaitzaren sustapena; 3.A. Gazteen enpleguaren sustapena; 4.A. Enplegurako prestakuntza; 5.A. Laneratzeko pizgarriak; 6.A. Errehabilitazioarako Renove programa; 7.A. Enplegu publikoa;

8.A. Enpleguaren kalitatearen hobekuntza; eta 9.A. Euskal enplegu-sistemaren hobekuntza.

9 jardun-eremu horiek 35 jardun-ildotan banatzen dira, eta horien helburua da ildo bakoitzaren esparruan garatu beharreko lehentasunezko ekimenak zehaztea eta, horretarako, helburu estrategiko zehatzak eta jarraipenerako eta ebaluaziorako dagozkien adierazleak zehaztea.

2020 EEEn bezala, 2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoaren diseinuan prozesu parte-hartzailea jaso da, gizarte-eragileen, sindikatuen eta enpresa-eragileen eta beste erakunde batzuen (foru-aldundiak eta udalak) eta enpleguaren munduarekin bereziki zerikusia duten beste eragile batzuen ekarpenak izateko.

Planaren aurrekontu-zuzkiduraren estimazioa 1.175 milioi eurokoa da, 2017-2020 aldirako.

Euskadiko Hiruko Elkarrizketa Sozialerako Mahaiak, 2015ean, estrategia berria diseinatzeko beharra adostu zuen; ondorioz, 2016ko lehen seihilekoan prozesu parte-hartzailea egin zen, eta **2020rako Euskal Enplegu Estrategia** zehaztu zen (EEE 2020). “2020rako Euskal Enplegu Estrategia –azaldu du Beatriz Artolazabalek– honako alderdi hauen inguruko adostasun zabalaren ondorio da: esku hartu beharreko erronka eta alderdi kritikoak; enplegu gehiago eta hobe sortzeko oinarri izango diren indargune eta aukerak; eta jarduketaren xede izan behar duten ahulezia eta mehatxuak. Hori guztia, 2020ra begira.

Gainera, pasa den martxoaren 28an, Gobernu Kontseiluan, **Ekonomiaren Susperraldiaren eta Enpleguaren aldeko 2020 Esparru Programa** onetsi zen; programa horrek ekonomiaren susperraldiaren dimentsioan Eusko Jaurlaritzak berrikuntzaren, nazioartekotzearen, industrializazioaren eta inbertsioaren arloan garatuko dituen oinarriko ildo estrategikoak ere jasotzen ditu. Hori guztia, enplegu gehiago eta hobe sortzeko.

Enplegua aktibatzea

Artolazabalen hitzen arabera, “Ekonomiaren Susperraldiaren eta Enpleguaren aldeko 2020 Esparru Programarekin eta 2020rako EEEREkin bat etorritik, 2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoak **helburu estrategiko batzuk** zehazten ditu, funtsean enplegua sustatzeko, honako hauek xede berezi izanik: ahulezia-egoeran bizi diren pertsonak; tokiko garapenari eta gizarte-ekonomiari lotutako laneratzea sustatzea; enplegurako prestakuntza bultzatzea; ekintzaileari modu integralean bide ematea; errehabilitazio-sektorean enplegua sortzeko programak aktibatzea; enpresarekin lotuago dagoen hezkuntza-sisteman sakontzea; enpleguaren kalitatea bermatzea; eta, gainera, Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuaren balio-ekarpena hobetzea, euskal enplegu-politikan jarduteko tresna nagusi den aldetik”.

Zeharka, Estrategia berriak arreta berezia eskaintzen dio **emakumeak** ekonomia- eta lan-jardueran **baldintza-berdintasunean** oinarrituta sartzea sendotzen duten neurriak hartzeari.

Aurreko 2014-2016 Enplegu Plana dela eta, **nobedade nagusia** da enpleguaren kalitate hobetzearen eta Euskal Enplegu Sistema hobetzearen inguruko helburuak sartu direla, eta, horiekin batera, “**enplegu gehiago eta hobe**” helburuari erantzuteko enplegua sortzeko helburuei eusten zaie.

Koordinazioa

Planaren gobernamendu-ereduak **sailen arteko eta erakundeen arteko koordinazioa** aurreikusten du. Erakundeen artetik, lankidetzako erakunde-akordioak edo hitzarmen bereziak gauzatzea aurreikusten da, eta bereziki esanguratsua irizten zaio foru-aldundiekin eta euskal udalekin koordinazioan jarduteari. Sailen artetik, Sailen arteko Batzordea eratzea aurreikusten da, segimendu- eta ebaluazio-funtzioak beteko dituen; bertan, Planean inplikazio zuzena duten sail eta zuzendaritzek (Lana eta Justizia, Ekonomiaren Garapena eta Azpiegitura, Hezkuntza, Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa, Gobernantza Publikoa eta Autogobernua, Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza eta Osasuna eta Ekonomia) hartuko dute parte.

Artolazabalen hitzen arabera, “**kontu-ematea** da gobernamendu-ereduaren funtsezko beste alderdietako bat; horretarako, **Planaren urteko segimendua** egitea aurreikusten da, Plana betetzen dela aztertzeko eta monitorizatzeko aukera ematen duten testuinguru, jarduketa eta inpaktuaren adierazle-sistema baten bidez. Era berean, 2017-2020 aldirako **Planaren amaierako balantze globala** egitea aurreikusten da, emaitzak ezagutzeko eta zehaztutako helburuak bete diren jakiteko, bai eta aldian zehar izan diren lorpen nagusien berri izateko ere”.

Enplegua eta Gizarte Politikak

LANBIDEK BESTE 5,13 MILIOI EURO ZUZENDUKO DITU DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK ENPLEGU-ZENTRO BEREZIAN LANERATZERA BIDERATUTAKO LAGUNTZAK ETA DIRU-LAGUNTZAK FINANTZATZEKO

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, desgaitasuna duten pertsonak enplegu-zentro berezian laneratzera bideratutako laguntzak eta diru-laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 5.153.700 eurotan gehitzea baimendu du Jaurlaritzak.

Aurtengo maiatzean, 2017ko ekitaldian Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren 1998ko urriaren 16ko Aginduan (desgaitasuna duten pertsonak enplegu-zentro berezian laneratzera bideratutako laguntza eta diru-laguntza publikoak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dituen) aurreikusitako laguntzak finantzatzeko 33.790.000 euro zuzentzea erabaki zuen Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak. Zenbateko hori, hala balegokio, gehitu ahal izango zela ezarri zen orduan, eta horixe gertatu da.

Laguntza horiek finantzatzeko baliabide ekonomikoak gehitu egin behar dira orain, eta Lanbidek 5.153.700 euroko ekarpena egingo du horretarako.

Enplegua eta Gizarte Politikak

GOBERNU KONTSEILUAK BAIMENDU EGIN DU LANBIDEK HEZKUNTZA SAILARI LANGABEZIAN DAUDEN ETA LANEAN ARI DIREN LANGILEENTZAKO PRESTAKUNTZA-PROGRAMAZIOA EGITEKO EGINDAKO MANDATUA

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburu Beatriz Artolazabalek proposatuta, Gobernu Kontseiluak baimena eman dio Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuari Hezkuntza Sailari zortzi milioi eurotik gorako kudeaketa-mandatu bat egiteko.

Lanbidek, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren Lanbide Heziketako Sailburuordetzarekin lankidetzan, lanean ari diren zein langabezian dauden Euskal Autonomia Erkidegoko langileen kualifikazio-premiei erantzuteko helburuarekin eta eskuragarri dauden baliabide publikoen eraginkortasunari eta haien erabileraren optimizazioari lotutako arazoak kontuan hartuta, Hezkuntza Sailari atxikita dauden Eusko Jaurlaritzaren lanbide-heziketako ikastetxe publikoen sarean bidezko profesionaltasun-ziurtagiriak eta kualifikazioa ematen duten beste zeharkako prestakuntza batzuk lortzera bideratutako prestakuntza-ekintzen programazioa bultzatzen du kudeaketa-mandatu baten bidez, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikuluan xedatutakoaren esparruan. Horretarako, bidezko Akordioa izenpetuko dute bi aldeek.

Ildo horretan, Lanbide erakunde autonomoak, Hezkuntza Sailaren Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzarekin lankidetzan, eta EAEko lurralde eta eskualdeetako lan-merkatuaren eta industria-sarearen egoera, hezkuntzaren eremuan eta enplegurako lanbide-heziketaren eremuan eskainitako lanbide-kualifikazioen egungo prestakuntza-eskaintza orokorra, egungo ikastetxeen sarea eta haietako bakoitzaren prestakuntza-ahalmena kontuan hartuta, 2017ko ekitaldian Euskadiko lurralde-eremuan EAEko Administrazioaren ikastetxe propioekin egin beharreko prestakuntza-ekintzen plangintza egin du.

Kudeaketa-mandatu horretarako zuzendutako zenbatekoaren guztizkoa 8.098.655,82 euro da. Horietatik, 5.998.837,60 euro langabezian dauden langileei zuzendutako prestakuntza-ekintzetarako izango dira, eta 2.099.818,22 euro, berriz, lanean ari diren langileei zuzendutako prestakuntza-ekintzetarako. Enplegurako lanbide-heziketako ekintzak langileei beren enplegagarritasuna sustatzeko eskain dakizkiekeen zerbitzu nagusietako bat dira. Izan ere, langileen kualifikazioa hobetzen eta lanbide jakin bat lantzera bideratzen dute, lanbide-arlo jakin baten inguruko jakintza bultzatzen dute, eta sektore eta jarduera ekonomiko guztietan aplikatzeko moduko zeharkako kompetentziak eta tresnak eskaintzen dituzte.

Ildo horretan, enplegurako lanbide-heziketa, oro har, enplegu-politika aktiboen tresnarik osatuena da, eta era global eta integratuan lantzen ditu orientatu eta aholkatzeko zeregina, prestakuntza-ekintza eraginkortasunez emateko zeregina (alderdi teorikoa eta praktikoa kontuan hartuta), lanaz kanpoko lanbide-praktikak, kontratazio-konpromisoen eskaintza eta, batez ere, lanbide-heziketako azpisistema honetan langabeekin eta landunekin egiten den prestakuntza- eta lanbide-ibilbidearen dimentsioa.

Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

4,3 MILIOIKO DIRU LAGUNTZA ZUZENA DONOSTIA-SAN SEBASTIANGO ETA EIBARKO UDALEI, TXOMIN ENEA ETA TXONTA AUZOETAKO HIRI IZAERAKO BERRONERATZEA EGITEKO

Gobernu Kontseiluak erabaki du, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak proposatuta, diru-laguntza zuzen horiek 4,3 milioi euroan ematea Donostia-San Sebastiangoko eta Eibarko udalei, Txomin Enea eta Txonta auzoetan hiri-berroneratzeko proiektuei ekiteko.

Esku-hartze pilotu horiek Sailak sustatzen duen eta Gobernu Programan jasotzen den birgaitzeko, birsortzeko eta berritzeko politika berriaren garapenean kokatzen dira, gure hiri eta herrietako auzo eta arlo suntsituak suspertzeko. Txomin Enea eta Txonta, Vitoria-Gasteizko Koroatzearen auzoarekin batera, eraikinen mantentze- eta kontserbazio-lan egokiak jaso nahi dituen politika honen lehen adibideak dira, Europar Batasunaren Horizon 2020 programan ezarritako efizientzia energetikoko eta irisgarritasuneko eskakizunekin.

Esparru horretan, Eibarko Udalarari 2,3 milioi euroko zuzeneko diru-laguntza eman zaio, Txonta birsortzeko, oso suntsituta dagoen hirigunea, auzo ahulen inbentarioan "ahultasun-maila oso handiko egoera"n sailkatzen dena. Elkarrekin esku hartuz, Txonta "Ekoauzo" izenez ezagutzen denaren adibide izan dadin nahi da; horretarako, eraikin zaharrak birgaitu egingo dira, efizientzia energetikoko eta irisgarritasuneko irizpideekin; etxebizitza babestuak eta oin berriko zuzkidura-bizitokiak eraikiko dira; gizarte- eta ingurumen arloetan hiri-berroneratzea egingo da, jasangarria, ikuspegi integralarekin; eta auzotarrek auzoan parte hartuko dute.

Programa pilotu honen lehen fasea Txonta kaleko 17 ataritako 221 etxebizitzatan oinarrituko da; horiek oinarritzeko birgaitze energetikorako jarduketa garrantzitsuak behar dituzte. Diru-laguntzaren helburua, halaber, "auzoko bulegoa" sortzea da, esku hartzeko plangintzari eta auzotarrekiko solasaldiari bide emateko, bai eta tokiko prestakuntza- eta enplegu-plana, mugikortasun jasangarriaren hobekuntza eta IKT teknologiak integratzea eta garapena ere.

Txomin Enearen hiri-berroneratzea

Bestalde, Donostiako Udalarentzako 2 milioi euroko zuzeneko diru-laguntza Txomin Eneako hiri-berroneratze proiektua finantzatzera bideratuko da; auzo bereziki ahula da, izan ere, etengabe izaten dira uholdeak eta arazoak izaten dira gizarte, bizigarritasun, irisgarritasun eta efizientzia energetikoko ikuspuntutik. Gaur egun, auzoan ari dira zenbait jarduketa egiten, besteak

beste, *District Heating* sistema garatzen ari da, beroa ekoizteko eta banatzeko, “*Replicate*” izeneko Europako proiektuaren barruan.

Horrela, eta Europako Batzordeak onetsitako proiektuarekin bat etorritz, aurreikusten da Txomin Enean Aintzieta pasealekuko 10 ataritan banatutako 156 etxebizitzaren eta 34 saltokiren artean banatutako birgaitze energetikoari heltzea. Lanak honako hauek izango dira:

-Fatxada, leiho eta estalkien birgaitze energetikoa, eta etxebizitza horiek auzoko berokuntza-sistemara eta uren sistemara lotzea (*District Heating*).

- Bero-sarea: % 100ean berriztagarria den biomasaren auzo-berokuntzaren sistema ezartzea, birgaitutako etxebizitzaren eskari termiko guztiari (berokuntza eta ur beroa) erantzuteko, eta gunean eraikiko diren etxebizitza berrien eskariari ere erantzungo diona.

- Mugikortasun jasangarria sustatzeko eta argi-sarean, garraioan eta komunikazioetan IKTak aplikatzeko ekintzak.

Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

325.000 €-KO DIRU LAGUNTZA UPV/ EHU-RI, ENERGIA KONTSUMO IA NULUAK LORTZERA BIDERATUTAKO ERAIKINEN BIRGAITZE ENERGETIKOAN IRTENBIDE BERRITZAILEAK GARATZEKO

Gobernu Kontseiluak, gaur, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuak proposatuta, UPV/EHUREN Donostiako Arkitekturako Goi Mailako Eskolari 325.000 €-ko diru-laguntza ematea onetsi du, energia-kontsumo ia nuluekin birgaitutako eraikin errealek lortzeko gai diren birgaitzearen eta, zehazki, birgaitze energetikoaren arloan eredu eta irtenbide berritzaileak garatzeko.

Zehazki, Arkitekturako Goi Mailako Eskolak hiru azterlan egingo ditu Amurrio (Araba), Ortuella (Bizkaia) eta Donostia (Gipuzkoa) udalerrietako zenbait eraikinetan, bai eta azterlan global bat ere, hiru proiektu horien ondorioak Eusko Jaurlaritzaren eta, oro har, Euskadiren titulartasuneko egoitza-parke eraikira eramateko aukerak aztertuko dituena.

Aurreikusten da Euskadiko parke eraikiaren bi herenek zaharkitze-maila altua duela, eta horrek arazoak eragiten ditu zenbait alderditan, besteak beste, efizientzia energetikoan, irisgarritasunean edo bizigarritasunean. Eta birgaitzea eta energia-kontsumo ia nulua batzea ez dela posible irtenbide konbentzionalekin; beraz, eraikuntza-mota horretara egokitutako irtenbideak ikertu eta garatu behar dira.

Hezkuntza

200.000 EURO IKERBASQUEREN I2BASQUE SAREA OSATZEN DUTEN EKIPOAK BERRITZEKO

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, Ikerbasque Zientziarako Euskal Fundazioari 200.000 euroko diru-laguntza zuzena ematea. Laguntza hau i2basque sare akademikoaren ekipoa berritzera bideratuko du Ikerbasquek.

i2basque sare akademikoak Euskadiko I+G+b komunitatea ardaztea du helburu nagusi, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea osatzen duten eragileen arteko lankidetzara, eta antzeko beste sare batzuetan dauden eragileekikoa erraztuko duten azpiegitura eta IKT zerbitzuak eskainiz.

2003 urtean hasi zen i2basque sarearen ibilbidea Hezkuntza Sailak bultzaturik. Hastapenean UPV/EHUrekiko hitzarmen bidez garatu bazen ere, aurrerago sare honen jarduera Ikerbasque Fundazioan integratu zen.

Egun, i2basque sare akademikoak 100 entitate baino gehiago ditu kide. Zerbitzua eman ahal izateko, i2basquek estatuko RedIRIS sarearekin zenbait lotura ditu. Lotura horri esker, kide horiek munduko intranet akademikorako konektagarritasuna dute, eta baita Internet komertzialera ere, orotara 40 Gbps-ko emariarekin.

Dena den, azpiegitura honek zerbitzua eraginkortasun osoz ematen jarrai dezan, Hezkuntza Sailak eta Ikerbasquek beharrezko deritzote sare horretako bi Presentzia Puntu (PdP deiturikoak) berritzeari. Puntu horietan RedIRIS sarearekiko trafiko trukea egiten du i2basquek, eta bertan daude banda zabal ultra-azkarrarak eskaintzen dituen komunikazio-zerbitzuak gehien erabiltzen dituzten entitate kideak.

Hezkuntza

970.000 EURO OINARRIZKO IKERKETAREN EDOTA IKERKETA APLIKATUAREN PROIEKTUETARAKO ETA IKERKETA ETA BERRIZTAPEN TEKNOLOGIKORAKO

Gobernu Kontseiluak, gaurko bileran, Hezkuntza sailburuaren agindu bat onartu du. Agindu horren bidez oinarrizko ikerketaren edota ikerketa aplikatuaren proiektuak 2018-2020ko aldiari gauzatzeko diru-laguntzak deitzen dira, baina baita ikerketa eta berriztapen teknologikorako laguntzak ere, Unibertsitatearen eta enpresaren artean 2018-2019ko aldiari egin beharreko jarduerak egiteko aurreikusitako fondoaren kontura. Deialdi honek 970.000 euroko diru-kopurua du.

Bi helburu nagusi ditu deialdi honek: alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Zientzia, Teknologia eta Berriztapen sistema indartzea, Hezkuntza Sailak kudeatuko dituen oinarrizko ikerketaren eta ikerketa aplikatuaren proiektu konkretuak gauzatzeko laguntzak emanez. Eta, bestetik, unibertsitateko eta teknologiko ikerketa-taldeen eta ekoizpen-sareko enpresen artean egon beharreko interakzioa sendotzea, kalitateko eta interes zientifiko eta teknologikoko ikerketa aplikatuaren edo teknologikoaren proiektuak egitearen bidez. Enpresentzat interesgarri gertatu beharko duten proiektu horiek, teknologia unibertsitateetatik enpresara transferitzea edo prozesu edo produktuen mailan helburu berritzaileak lortzea ekarri beharko dute ondorioz.

Deialdi honen bidez ikerketa-proiektuak gauzatzeko diru-laguntzak bi lerrotan ematen dira:

-Diru-laguntza lerro bat, 690.000 euroko kopurua duena, 2018-2020ko aldiari oinarrizko ikerketaren edota ikerketa aplikatuaren proiektuetarako. Diru-laguntza horiek, halaber, bi modalitate dituzte: lehena, oinarrizko ikerketaren edota ikerketa aplikatuaren proiektuak organismo bakar batean gauzatzen sustatzera bideratutakoa, eta organismo desberdinetako ikerketa-taldeak proiektu berean sustatuko dituenak, bigarrena.

-Beste diru-laguntza lerro bat, 280.000 euroko kopurua duena, ezagutza unibertsitateetatik enpresetara transferitzeko ikerketa-proiektuetarako, enpresa horiei interesatzen zaizkien arloetan, 2018-2019 aldirako. Unibertsitate-taldeak, enpresako pertsonalaren parte-hartzearekin, gauzatu beharko dituzten proiektuak; laguntzen duten erakundeetako ikertzaileek ere izango dute parte hartzeko aukera. Bigarren lerro honetan, parte hartzen duten enpresek proiektuaren kostu osoaren % 10, gutxienez, finantzatu beharko dute.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute Euskadiko unibertsitate publikoko (UPV/EHU) nahiz pribatuak ikerketa taldeak, eta baita BERC deritzen Oinarrizko Ikerketa eta Bikaintasun Zentroetako taldeak ere. Deialdi honen bidez diruz lagundu ahal izango diren kontzeptuen artean daude: doktore ez den pertsonalaren gatuak, doktoreen pertsonal gastuak, inbentarioko materiala, material suntsikorra, edo proiektuaren garapenak eskatuta egin behar izan diren bidaien gastuak.

Presidencia

EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA AYUDAS A EMPRESAS PARA REALIZAR DIAGNÓSTICOS Y PLANES DE IGUALDAD

El Consejo de Gobierno ha aprobado la convocatoria de subvenciones de Emakunde/Instituto Vasco de la Mujer para el año 2018 dirigida a empresas y a entidades privadas para la realización de un Diagnóstico sobre la igualdad de mujeres y hombres y un Plan para la igualdad.

Las ayudas, a las que se destina una cantidad de 80.000 euros, están dirigidas a subvencionar la contratación de consultoras homologadas que presten asistencia técnica a las empresas en la elaboración del diagnóstico y del plan, tanto para su organización interna como para la prestación de sus servicios o productos.

La subvención va orientada a ayudar a las entidades en sus primeros pasos, para facilitar la incorporación de una cultura que promueva la igualdad dentro de la empresa, en la confección de sus primeros Diagnósticos y Planes para la igualdad, a fin de dotar a las empresas y organizaciones de recursos materiales, económicos y personales para el diseño de planes y programas.

Desarrollo Económico e Infraestructuras

GOBIERNO VASCO APRUEBA LA MODIFICACIÓN DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN CON LA ADMINISTRACIÓN DEL ESTADO PARA LA CONSTRUCCIÓN DE LA Y VASCA Y LA ACTUALIZACIÓN DE LA ENCOMIENDA

- **El Gobierno Vasco asume la ejecución de nuevas actuaciones como las estaciones de Ezkio, el apeadero de Astigarraga o las salidas de emergencia del tramo Bergara-Lezo**
- **Posteriormente el Consejo de Ministros deberá ratificar los 2 documentos: modificación del convenio y el de la encomienda**

El Gobierno Vasco asumirá la ejecución de nuevas actuaciones en el tramo Bergara-Lezo de la Y vasca. Las nuevas tareas serán encomendadas a la Administración General de Euskadi mediante la modificación del Convenio de Colaboración suscrito el 24 de abril de 2006, entre la Administración General del Estado, la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y el Administrador de Infraestructuras ferroviarias (ADIF) para la encomienda de actuaciones para la construcción de la Nueva Red Ferroviaria en el País Vasco.

Se incorporan nuevas actuaciones que no estaban incluidas, cuando fue suscrito el Convenio de Colaboración el 24 de abril de 2006:

- a. Construcción de la Estación de Ezkio. Con un coste inicialmente previsto de 4,10 M€ (IVA Incluido) teniendo en cuenta el Proyecto básico de la Estación de Ezkio.
- b. Construcción del apeadero de Astigarraga en la red de ancho ibérico gestionada por ADIF, con un coste inicialmente previsto de 4,70 M€ (IVA Incluido).
- c. Ejecución de nuevas actuaciones en el tramo Bergara-Lezo:
 - Salidas de emergencia en túneles conforme al Reglamento de la Unión Europea nº 1303/2014, de la Comisión de 18 de noviembre de 2014, con un coste inicialmente previsto de 14,18 M€ (IVA incluido).
 - Actuaciones adicionales: estabilización de laderas y reposición por afecciones que se han producido en los manantiales existentes, con un coste inicialmente previsto estimado de 1,72 M€ (IVA incluido).

